

94. FITXA ARABA - Aurreikusi ezin diren egoeretan toki-erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak, udalak (Vitoria-Gasteizkoa izan ezik) eta kuadrillak.

Sarbide esteka: [Ustekabeko eta larrialdiko obrentzako laguntzak - egoitza](#)

Erreferentziazko araudia: [93/2025 Erabakia, otsailaren 18koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurreikusi ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzaren 2025eko ekitaldiko deialdiari](#)

Eremuak: Larrialdiak

Zenbatekoa: 350.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/12/31 edo aurrekontua agortu arte.

Laburpena

Honako hauek hartuko dira **ezustekotzat eta premiazko obratzat**: gertatutako istripuen ondorioz edo aurreikusi ezin zitezkeen beste egoera batzuen ondorioz berehala egin behar direnak, edo istripu edo egoera horiek ez gertatzeko helburua dutenak.

Aplikazio eremua:

Eskatutako jarduketak ezusteko eta premiazko obratzat hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Erakunde eskatzaileak eskatutako jarduketa finantzatzeko gai ez izatea.
- Erakunde eskatzaileek aurrekontuan kreditu egokirik ez izatea.
- Larrialdia edo ezustekoa eragin duen egoeraren ondorioz, pertsonen eta/edo materialei kalteak eragiteko arrisku erreala edo potentziala egotea.
- Eskatutako jarduketak herriguneetan egin behar izatea, edo haietatik kanpo baldin eta etxebizitzak edo bestelako higiezinak babesteko beharrezkoak badira. Herrigunetzat hartuko da aplikatzekoa den hirigintza araudiak hiri lurzoru gisa sailkatutako lurzoruarekin bat datorrena.

- e) Jarduketaren ondasunen titulartasuna toki erakunde eskatzaileena izatea.
- f) Gertatutako istripuen edo aurreikusi ezin ziren beste egoera batzuen ondorio bada eskatutako jarduketa, larrialdia edo ezustekoa eragin duen egoera laguntza eskaera egin aurreko bi hilabeteetan gertatua edo agertua izan behar da.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Lehia libreko dirulaguntzak dira.

Dirulaguntza diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren **ehuneko 100era** irits daiteke, gehienez ere **300.000,00 euroko** dirulaguntzarekin toki erakunde bakoitzeko.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduketa **2025eko abenduaren 31 baino lehen** gauzatu beharko da, salbu eta emakida ebazpena urtearen azken 5 hilabeteetan onesten bada. Kasu horretan, obra gauzatzeko gehieneko epea **2026ko ekainaren 30era** arte izango da.